

Euskadiko gazteak duela urte batzuk baino nabarmen gutxiago joaten dira zinema-aretoetara

Euskadiko gazteak EAEko biztanleria osoa baino gehiago joaten dira zinemara, baina Espainiako gazteak baino gutxiago.

Aste honetan Donostiako Zinemaldia ospatzen dela-eta, jakin nahi izan dugu Euskadiko gazteen zein ehuneko joan ohi den zinema-aretoetara.

Galdera horri erantzuteko, [Gazteen Euskal Behatokia](#)k 2012ko martxoan EAEko 15 eta 29 urte bitarteko 1500 gazteri egindako inkesta baten emaitzetan oinarritu gara. Bertan aurreko hiru hilabeteetan (2011ko abendutik 2012ko martxora, hain zuzen ere) zinemara joan izan ziren galdetu zitzaizen gazteei.


Euskadiko gazteen erdiek baino zertxobait gehiagok (% 53) hilabete horietan gutxienez behin joan zirela erantzun zuten.

Zinemara joandakoen ehunekoa asko jaitsi da 2007tik 2012ra (% 72tik % 53ra). 2007ko datuak Kulturaren Euskal Behatokiak kalkulatu eta eman dizkio Gazteen Euskal Behatokiari.

Filmak Internet bidez deskargatu ahal direnez eta sarrerren prezioak asko igo direnez, gazteak ez dira zinema-aretoetara lehen bezain sarri joaten.

Nolanahi ere, zinemara joandako gazteen ehunekoak altuagoak dira EAEko biztanleria osoarenak baino. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioaren [Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011](#) txostenaren emaitzen arabera, Euskadiko biztanleen % 30 zinemara joaten dira. Ehuneko hori gazteei dagokiena baino nabarmen baxuagoa da. Oro har, diru gutxiago izan arren, astialdi gehiago eta familia-ardura gutxiago izateak gazteek aisia-jarduera horretarako joera handiagoa izatea dakar berekin.

Datuok Espainiako gazteenekin alderatuz gero, ikus daiteke Euskadiko gazteak gutxiago joan ohi direla zinemara Espainiakoak baino. Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioak 2010-2011ko txosten bera hartu eta Gazteen Euskal Behatokiarentzat egindako kalkuluen arabera, Espainiako gazteen % 61 zinemara joan ohi dira.



Kolektiboen arabera dauden aldeei erreparatuta, neskak mutilak baino gehiago joaten dira zinema-aretoetara (% 55 eta % 51, hurrenez hurren). Era berean, 25 urtez beherakoak sarriago joaten dira zinemara 25 eta 29 urte bitartekoak baino (% 56 eta % 49, hurrenez hurren).

Ikusle gazteei zuzenduriko film batzuen arrakasta komertziala (*Crepúsculo* film-multzoa, adibidez) neskak eta 25 urtera artekoak zinemara gehiago joatearen arrazoia izan daiteke.

Jarrai gaitzazu gizarte-sareetan!



La asistencia a las salas de cine desciende notablemente en la juventud vasca

Las y los jóvenes vascos van más al cine que la población general de la CAPV pero menos que la juventud española

Coincidiendo con la celebración del Festival de Cine de San Sebastián (Zinemaldia), nos preguntamos cuál es el porcentaje de asistencia a las salas de cine de la juventud vasca.

Para responder a esta pregunta nos hemos basado en los resultados de una encuesta realizada por el Observatorio Vasco de la Juventud en marzo de 2012 a 1500 jóvenes de la CAPV de entre 15 y 29 años. En ella se preguntaba a las y los jóvenes si habían acudido al cine en alguna ocasión en los tres meses anteriores (esto es, de diciembre de 2011 a marzo de 2012).


Algo más de la mitad de la juventud vasca (53 %) señalaba haber asistido al cine al menos en una ocasión durante dichos meses.

El porcentaje de asistencia al cine ha descendido notablemente de 2007 a 2012, pasando de un 72 % al 53 % (los datos de 2007 han sido proporcionados por el Observatorio Vasco de la Cultura).

La generalización de las descargas de películas de Internet, añadido al incremento de los precios de las entradas, ha llevado a que la juventud acuda en menor medida que antes a las salas de cine.

A pesar de todo la juventud presenta mayores porcentajes de asistencia al cine que la población general de la CAPV. Según los datos de la Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011 del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte, el 30 % de la población vasca acude al cine, porcentaje notablemente inferior al de la juventud. Pese a la menor disponibilidad monetaria de la juventud en general, es cierto que contar con más tiempo libre y tener menos cargas o responsabilidades familiares hace que la juventud participe en mayor medida que el resto de la población de esta actividad de ocio.

Si la comparación la hacemos con la juventud española vemos que las y los jóvenes vascos acuden menos al cine que las y los españoles. Siguiendo con datos de la misma encuesta de 2010/2011, calculados por el Ministerio de Educación, Cultura y Deporte para el Observatorio Vasco de la Juventud, el 61 % de la juventud española asiste al cine.



Atendiendo a las diferencias por colectivos, observamos que las chicas van más que los chicos al cine (55 % y 51 %, respectivamente), y las y los menores de 25 años también acuden con más frecuencia que quienes tienen de 25 a 29 años (56 % frente a 49 %).

El éxito comercial en los últimos años de ciertas películas orientadas al público juvenil (como por ejemplo la saga *Crepúsculo*) puede explicar, en parte, la mayor asistencia al cine de las chicas y las y los menores de 25 años.

¡Síguenos en las redes sociales!

Enlace a los datos de la Encuesta de Hábitos y Prácticas culturales 2010/2011 del Ministerio de Educación, Cultura y Deporte:

<http://www.mcu.es/estadisticas/MC/EHC/2010/TablasResultados.html>